

AHOZKO PROBLEMAK 3

Buruketak ondo egiteko marrazkiak egin ditzakezu edo zenbaki zuzena erabili.

13- 7 pegatina nituenez Erroxaliri 5 oparitu nizkion.

Zenbat pegatina geratu zaizkit?

14- Asteazkenean 7 kanika irabazi nituen, baina atzo 3 galdu nituen.

Zenbat kanika irabazi ditut bi egunen artean?

15- Ainizek 7 errotulki eman zizkidan eta gaur 5 gastatu ditut.

Zenbat geratzen zaizkit?

16- Jonek 4 pilota ditu eta Begoñak 2.

Zenbat pilota dituzte bien artean?

17-Zenbat da 6 tigreren erdia?

18-Laranja batean, zenbat laranja erdi daude?

19-Zenbat txakur dira 3 txakur eta 4 txakur?

20-Zenbat da 10 sagarren erdia?

21- 6 gerezi ditut. 2 usteltzen badira, zenbat
geratzen dira?

22- 3 poltsa dauzkat, eta poltsa bakoitzean
2 intxaur daude.

Zenbat intxaur daude hiru poltsen artean?

23-Goizean 2 gaileta jan ditut eta arratsaldean 3.

Zenbat gaileta jan ditut denetara?

24-Madariak hartzera goaz. Nataliak 5 hartu ditu eta nik beste 2.

Zenbat hartu ditugu bion artean?